

## BELAUSTEGIGOITIAREN OMENEZ

*Laudion, 2002.eko abenduaren 20an*

*Jose Luis Lizundia Askondo*

Pablo Gorostiaga, Audio araneko alkate jauna; Jean Haritschelhar, euskaltzainburua; Jone eta Maitane Belaustegigoitia Ortueta andere agurgarriok; alderdi desberdinetako zinegotzi; euskaltzale agurgarriok; Aiarako kuadrilla Batzarreko buru, alkate eta herri hautetsiak.

Benetan atsegingarra zait, gaur eta, hemen, Laudion, Arabako bigarren hiri, Aiarako koadrilako Udal nagusi den herri honetan, Federiko Belaustegigoitiari omenezko hitzak esatea.

Felix Muguruza adiskideak, aspaldiko adiskide dudana Pablo Gorostiagaren izenean, eskatu zidanean gaurko ospakizun honetan, hitz batzuk nik esan behar nituela, arrazoi bikoitzez, behintzat, atseginaz natorkizue.

Lehendabizikoz, Federiko Belaustegigoitia 1919an sortu zenean, euskaltzain urgazle arabar izendatua zelako. Euskaltzaindiaren Arautegiaren egile. Haren biobibliografiaz ez dizkizuet gauza gehiegi esango. Henrike Knörr, euskaltzainburorde eta Arabako ordezkariak, Arabako Batzar Nagusien aretoan, sarrera hitzaldia egin zuenean (ikus *Euskera* 1978-1, 17-38. orr.), arrazoi franco agertzen ditu. Geroago, zenbait bibliografok, hala nola, Gregorio Arrien papiotar historiagileak eta Lagranja jaunak jorratu dituzte, besteak beste.

Niretzat, bazen bigarren arrazoi bat, Euskaltzaindiak 1919an sortu eta bi urtetara, 1921ean beraz, bere I. Biltzarra egin zuen, hain zuzen, Durangoko urian: *Lehen Euskal Egunak* deitutakoa. Txostengileen artean, Resurreccion Maria Azkue, Orixe, Barandiaran, Gabriel Manterola, Georges Lacombe, Telesforo Arantzadi eta Juan Bautista Eguzkitza aurkitzen dira. Niretzat, behar bada, nire ikuspuntutik, ez bainaiz ikerlea, ez literatura ikerlea, gehien interesatu zitzaidana, Federiko Belaustegigoitiaren txostena zen, hara hor, bere izenburua eta kapituluak banan-banan: EUSKERAZKO ESKOLAK: “ume ikastolak eta beste ikastolak: gure lan nagusia; nai dogun ikastola; ikastola barriak Diputazioño ta udalen egitekoa; eskola liburuak eta Euskaltzaindia auzo ikastolak”. Oker ez banago, Mikel Zalbide, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saileko Euskara zerbitzaburu den euskaltzain urgazlearekin mintzatu naiz horretaz, Federikok sortu ez bazuen ere eta, badirudi, hitz larramendierra zelakoa ze-

goen Mikel Zalbide, baina Larramendik **ikasola** dakar. **Ikastola** hitzaren hedadura, Federiko Belaustegigoitiari dagokio lehenengo Euskaltzaindiaren Bilzar horretan. Hara hor horren lekukotasuna.

Euskararen ofizialtasunaz, irakaskuntza publikoan, jakin behar dugu garai horretan, Bizkaiko Diputazioa zela auzo ikastolen «escuelas de barriada» deritzanaren elebitasunaz arduratuta, Landeta diputatua. Ramon de la Sota, Diputazioeko presidente zelarik eta Kosme Elgezabal eta Felix Landaburu, Euskaltzaindiaren sortzea aurkeztu zuten diputatuak izan baziren ere, han bertan, irakaskuntzaz arduratu zen Luis Eleizalde euskaltzain osoa. Horretarako ekarri zuen, besteak beste, Bizkaiko Diputaziora, Arabako institutuan irakasle edo katedradun zen bergararra, Luis Eleizalde, hain zuzen. Iniziatiba horiei esker, planteatu zen, besteak beste, Euskal Herrian lehendabizikoz Irakaslego Eskola elebiduna. Ez zuten gure Diputazioek irakaskuntzan eskuduntzarik, bai, ordea, Kontzertu Ekonomikoak. Horri esker, sor zitezkeen Bizkaian Irakaslego Eskola elebiduna. Non kokatuko? ez Bilbon, hiriburu erdaldunegia baizen, baizik eta Bizkaiko lau eskualde Arratia, Uribe, Busturialdea eta Durangaldearen ardatzean, Zornotzan. Han sortzekoa zen, baserri bat erosi eta hor kokatzeko asmoa zegoelarik. Diputazioen aldaketa, abertzaleak kanpora, laster, Primo de Riveraren diktadura eta geroztik ezagutu dugu «guardia civil»en kuartela, orain urte gutxirarte, ertzainak ordezkatu arte.

\* \* \*

Ikertzekoa litzateke, iniziatiba horretan ere tarteko izan ote zen gure Federiko. Euskararen batasunean ere, lehenengotarik konturatu zen gizona dugu Federiko Belaustegigoitia. Hara hor, zer esaten zuen Henrike Knörrek 1978an egindako bere sarrera hitzaldian, 28. orr. zera dio:

“Euskera bardindu, garbitu eta aberastea... jakintza hutsezko gai ta lanetan ez da Euskaltzaindia galdu bear”.

“Euskaltzaindia euskerearen alde lan egiteko sortu zan; Euskaldun guztien, bai nazionalista, bai jaimista, bai tradizionalista, Alderdi guztietako euskaldunen izkera garbia dan Euskera jazotzeko”.

Noa orain bigarren zatira. Jone eta Maitena Belaustegigoba Ortueta ahizpei eskaintzea, bai Laudioko Udalak eta bai Euskaltzaindiak. Utziko didazue biok gure euskarari, Durangoko uriko euskarari hitz batzuk esatea.

Belaustegigoitia ahizta maitagarriok. Noizean behin ikusten dogu Durangoko kaleetan, zoritxarrez, Uribarriko Andra Mariaren elezpean. Hainbeste maite izan dozuen Euskal Herriari eta euskaltzaletasunaren lekuko zarie. Lekuko, zure aitagandik eta Ortuetarrengandik jasotako mezua izan dozue, ni bizi nazen kalean, kale berberean, daukazuen etxe horretan. Oraintsurarte kale berberean bizi izan baikara. Uriaren gerra aurreko euskaltzaletasunaren lekuko zarie. Durango beti izan da euskaltzaletasunaren habia. Astarloaren garaitik eta 1886an Jaialdi Euskerazkoetan, 1921eko Euskal Egunetako I. Kongresuan ere

zuen aita izan zen hizlari eta antolatzaile. Geroztik 1936ko gerra zibilaren ondoren —Durangon gehiengoa errepublika garaian ere karlistak gehiengo izan eben— eskuma nagusitu zan eta abertzaleak eta errepublikazaleak baztertuta. Dana dala, interesgarria litzateke oroimena, zenbait lekukotasun jasotzea. Durangoko urian, euskeraz ondo berba egin daben asko egon dira euskera berreskuratzeko ahaleginak egin ditu, kale berean dogun ikastola lekuko eta orain baita ere ingelesarekin eta frantsesarekin batera, Hizkuntza Eskola Ofizialean ere euskerak bere indarra dauka. Une honetan, beste durangar baten, aita Daniel Baertelen oratoria baldin baneunka, batzuk esaten ebenez, predikaririk hoberenetarikoa, Hego Euskal Herrian XIX. mendearen amaieran eta XX. mendearen hasieran, bohemiarra jatorriz hain zuzen luzatuko neunke neuk sermoi zibila, baina amaitzea hobe izango da.

\* \* \*

Besterik ez eta, orain, Pablo Gorostiaga Laudioko alkate jauna eta Jean Haritschelhar euskaltzainburu jaunak emongo deusue zuen aitaren omenezko ezaugarria. Zorionak eta *ekin* eta *jarrai*.